

Emakumeek % 32ko aukera gehiago dute ebakuntzen ostean hiltzeko zirujaua gizonezkoa bada



ARG.: PxHere.


[Kanadako ospitaleetan egindako ikerketa batek frogatu du](#) zirujauen eta pazienteen generoak baduela zerikusirik ebakuntzen emaitzan. 3.000 zirujauen eta 1,3 milioi pazienteren jarraipena egin dute, eta ikusi dute emakumeek ebakuntzen ondorengo arazoak izateko aukera gehiago dituztela zirujaua gizonezkoa den kasuetan. Zenbaki absolutuak ez dira handiak, baina bai estatistikoki esanguratsuak. Hain zuzen, ebakuntzen osteko % 15 konplikazio gehiago, % 11 berrospitaleratze gehiago eta % 32 heriotza gehiago pairatu dituzte. Paziente gizonezkoek, aldiz, emaitza bertsuak izaten dituzte zirujaua gizonezkoa zein emakumezkoa izan.

Zirujau guztiek antzeko gaitasun teknikoak eskuratzzen dutenez, ikertzaileen ustez, litekeena da zirujauen joera, estereotipo eta jarrera inkontziente eta sakonki errotuek eragina izatea ebakuntzak egiteko garaian. Pazienteekin komunikatzeko moduak, harremanetarako gaitasunak, lan-estiloak eta erabakiak hartzeko moduak ere eragina izan dezaketela uste dute. Eta ohartarazi dute ezen, emakume askok hasten badute ere zirujau-ibiltidea, espezializatu ahala gero eta gutxiago direla. ●

Natura lehengoratzeko lege sendoagoen eskaria

SERE natura lehengoratzeko Europako elkartearen gidaritzapean, 30 elkartek eta milaka zientzialarik [adierazpen bat sinatu dute](#), natura lehengoratzeko asmo handiko lege bat eskatzen duena.

Adierazpenean, xede zehatzak jaso dituzte: ahalik eta leheneratze-maila handiena lortzea izatea helburua; lege berriak aurretik dauden arauei gehitzea; ekosistema jakin batzuei lehentasuna ematea (hezeguneak, basoak, larreak eta sakonera txikiko itsas eremuak); ebidentzia zientifikoan oinarritutako metodologia erabiltzea; ezarpen-eremua paisaiaren eskalakoa izatea; hiri-paisaiak, nekazaritzakoak eta meatzaritzakoak leheneratzea; legegileei eta profesionali aholkua ematea; epe luzeko konpromisoa hartzea; inbertsioen onura bermatzea; eta finantziazioa.



Natura lehengoratzeko lege zorrotzagoen eta sakonagoen beharra aldarrikatu dute SERE adierazpenean.

Azken puntuan, klima-larrialdiari aurre egiteko ekimenen kalteak aurreikustea eta saihestea ere eskatu dute. Horren adibidetzat jartzen dituzte biomasaren erabilera, zeina biodibertsitatearentzat kaltegarria izan baitaiteke, eta baso-sartzeak egitea materia organikoz urriak diren lurretan. ●